

704/2022 EBAZPENA, 2022KO ABUZTUAREN 22KOA, GARAPENeko ETA PRESTAKUNTZAKO ZUZENDARIORDEARENA –ORDEZKO GISA, OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA EZ DAGOELAKO–, ZEINAREN BIDEZ LUZATZEN DEN OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIAREN ABUZTUAREN 12KO 693/2022 EBAZPENEAN EZARRITAKO EPEA

2022ko abuztuaren 12an, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariak 693/2022 Ebazpena eman zuen, zeinaren bidez Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetako profesionalen lanbide-garapeneko mailaren behin-behineko esleipena argitaratzeko agintzen zen, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren ekainaren 2ko 1208/2022 Ebazpenaren bidez argitaratutako lanbide-garapeneko ezohiko deialdiaren esparruan.

Garapeneko eta Prestakuntzako zuzendariordearen –ordezko gisa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendaria ez dagoelako– 2022ko abuztuaren 18ko 702/2022 Ebazpenaren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren abuztuaren 12ko 693/2022 Ebazpenean atzemandako oker materiala zuzendu egin zen.

Lanbide-garapeneko ezohiko deialdiaren akordioa sinatu zuten sindikatuetakoko ordezkariak epea luzatzeko egindako eskaera kontuan hartuta, eta Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 39. artikulua babespun,

Horregatik guztiagatik,

EBAZTEN DUT:

LEHENENGOA.– Bost egun baliodunez luzatzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren abuztuaren 12ko 693/2022 Ebazpenean ezarritako epea. Ebazpen hori oker material baten ondorioz zuzendu zen, 702/2022 Ebazpenaren bidez.

BIGARRENA.– Ebazpen hau Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren intranetean eta web-orrian argitaratuko da.

Nolanahi ere, argitalpen honek banaka egindako jakinarazpenak ordeztu eta ondorio berberak izango ditu.

Ebazpen horren aurka ezin da errekurtsorik jarri, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 23.2 artikulua araberan.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko abuztuaren 22a

JOSUNE RETEGI ORMAZABAL

GARAPENeko ETA PRESTAKUNTZAKO ZUZENDARIORDEA

(Ordezko gisa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendaria ez dagoelako)